Eman hegoak euskarari

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Zugandik aparte

Leteren hitzak bereak egin zitzakeen Alainek: Euskal Herri nerea ezin zaitut maite

ARITZ GORROTXATEGI

1968an argitaratu zuen Xabier Letek 'Euskal Herri nerea' abestia, berak jarritako doinuarekin. Ezaguna da hasiera: «Euskal Herri nerea ezin zaitut maite, baina non biziko naiz zugandik aparte». Poetak bere herriarekin bizi zuen gazi-gozoa islatzen du kantak. Bai, baina ez. Bertan, baina urrun. Hatzekin ukitzeko moduko tristura nabarmentzen dute lerrook, baina, baita aldi berean, sorterriarekiko errotze estua ere. Tristeagoa baita, akaso, «etxerik eza, denok behar baitugu haren babesa». Esanguratsuak dira, halaber, amaierako hitzak, batez ere orduko testuingurua kontuan hartuta: «Ekintzetan gauzatzen da bizitzaren grina... errespeta bizia, elkarri merezia, guziok berdinak gara: hauskorrak, hilkorrak azkenean». Xabier Leteren poema eta kanta guztiak biltzen dituzten hiru liburukiei errepaso bat ematean heldu naiz pasarte horretara, nire haurtzaroaren soinu banda osatzen duten hainbat abestiren letra gainbegiratzean. Eta, hitzaurrean, hitzaurregileek (Lourdes Otaegik eta Alex Gurrutxagak) nabarmentzen duten zerbaitekin lotu dut. 1978an eten handia gertatu zen Leteren bizitzan. Jaialdiak eta musika emanaldiak erabat bustitzen zituen giro politikoaz gogaituta, kantagintza utzi zuen. Akidura haren neurria ematen du Letek une hartan pentsatu omen zuenak: «Aguanta zaitzatela zeuen ama santisimak!».

Urte batzuk lehenago, Gabriel Arestik antzeko zerbait aitortu zuen bere gutunetako batean, «kantsanzioa» zela eta, beste Unamuno bat suertatzeko puntuan izan zela. Bistan da ez dela lanbide samurra euskalduna izatea. 'Bizitza lanbide' izenburua jarri zion Pavesek bere liburu gogoangarrienetako bati. Hain zuzen ere, Xabier Letek italiarraren 'Heriotza etorriko da eta zure begiak izanen ditu' poema itzuli zuen 1991n. Faxismoak Italia itota zuen garaian, Pavesek haize freskoa bilatu zuen AEBetako literaturan, aberri ideal bat. Estutasun horri iskin egingo zion estilo baten bila zebilen, erregionalismoa eta unibertsaltasuna aldi berean uztartzeko gai izango zena. Gogo biziz lotu zitzaion, hortaz, hango hainbat egile irakurtzeari, baita itzultzeari ere: Melville, Whitman, Sherwood Anderson, Sinclair Lewis, Lee Masters, Dreiser... Hain zuzen ere, duela gutxi kaleratu da Lee Mastersen 'Spoon River Antologia' (Balea Zuria argitaletxea), poema-liburu klasikoa.

Alain Lopez de Lacalleri zor diogu itzulpena. Leteren arestiko hitzak bereak egin zitzakeen Alainek: «Euskal Herri nerea ezin zaitut maite, baina non biziko naiz zugandik aparte». 2000ko maiatzaren 7an ETAk bere aita Jose Luis erail zuen tiro batez Andoainen. Zenbatetan izango zituen Alainek Leteren hitz horiek, edo antzeko beste batzuk, buruan bueltaka... Zenbatetan sentituko zen arrotz giro politikoak larregi kutsatutako euskararen inguruko hainbat ekitalditan, edo gogaituta, halakoetan presoen inguruko atrezzo etengabe errepikatua ikusi beharraz... Alainek ez du euskararen inguruko manifesturik sinatu, ezta hizkuntza eskubideen aldeko agiririk ere, are gutxiago euskal kulturaz kamuflatutako aldarri politikorik. Hala ere, ez da euskaratik urrundu. Isilik eta lan handia eginez, 300etik gora orrialdeko itzulpen bat egin du euskaraz, ekarpen eder bezain apal hori egin dio gure hizkuntzari diskrezioz baina maitasunez. Liburu bat, gauza ukigarri bat, edonoren eskura egon daitekeen objektu bat, aspaldiko ingelesezko hitzak euskaraz dantzan jartzen dituena. Bi mundu eta bi denbora ezberdin uztartzen dituena. Esanguratsua ere bada, 'Spoon River Antologia'k alegiazko herri baten biztanleei ahotsa eskaintzen diela, hil osteko haien gogoetak jartzen dituela irakurlearen aurrean. Danteren infernuko biztanle haiekin gertatzen zenaren antzera. Hildakoak biziekin hizketan. Euskaraz. Sasi guztien gainetik, laino guztien azpitik... Ez da ariketa txarra, inondik ere. 'Spoon River Antologia'n 'Ezezaguna'ri eskainitako poemaren amaiera ezin egokiagoa iruditzen zait: «Egunero arakatzen dut Hadesaren erresuma/ belatzaren arimaren bila,/ bizitzak zauritu eta kaiolatu duen honek/ bere adiskidetasuna opa diezaion».

Korta zaharreko zuloak

JON MARTIN-ETXEBESTE

Norbanakoek giza harremanen aurrean sentitzen duten antsietatea da Olatz Mitxelenaren ipuin liburuko gai nagusia. Hamar ipuinen bidez deskribatzen da protagonisten ondoeza. Batzuetan, harreman afektiboek epe luzean eragiten dituzten arrakalak eta kortseak dira aztergai: bikote harremanetan sortzen den asperdura, kuadrillakoen arteko zaintza eta denboraren poderioz barneratzen diren rolak, edota familia egitura eta nostalgia. Besteetan, gizarte mailako arazoa da oinarri: sortzaileen esposizioa, ezezagunekin harremantzeko zailtasuna, pandemia batek eragindako beldurraren kudeaketa edo gerrak eragindako kamera geldoko desplazamendua. Bi kasuetan, norbanakoaren psikologia da erretrataturik geratzen dena.

Errealismo magikoz zipriztindutako liburua ondu du Mitxelenak. Ipuinaren hasieran kliskagailu funtzioa betetzen duen gertaera bitxiren bat agertzen da: haur baten ezohiko jokaera, amnesia selektiboa, umeltasuna, hildako katuen etorrera... Gertaera horrek irakurlearen jakin-mina pizten du hasieran, eta geroz eta garrantzia handiagoa hartuko du ipuinean barrena, harik eta gertaera hori pertsonaiaren korapiloa askatzeko giltzarri bihurtuko den arte. Gertaerak, beraz, profezia gisa funtzionatzen duten metaforak dira. Ipuinetako elkarrizketak ez dira naturalak, idazleak ipuinen mezu nagusiak kokatzeko erabiltzen dituen artifizioak baizik. Joera horren auto-parodia egiten du idazleak azken ipuinean museozainaren 'crush'ak aforismo bidez hitz egiten duela dioenean. Detaile jostari oso baliotsuak ere baditu liburuak. Lehena izan arren estilo kontsolidatuko idazle baten lana ageri da. Interesguneen ikuspuntutik, filosofiatik eta mitologiatik gertuko koka daiteke; eta, estilo aldetik, Hego Amerikako idazleen estilotik.

ARRAIN HEZUR BAT EZTARRIAN
OLATZ MITXELENA
Elkar. 136 or. 15 euro

Sabela hustu

ARANTXA URRETABIZKAIA

Askotan bezala, norbaitek pentsatu gabe botatako hitzek egin zuten habia nire burmuinean. Herriko plazaren betekizuna bere gain hartu duen supermerkatuan gertatu zen. Gaztaroa aspaldi atzera utzi zuten bi emakume ari ziren hizketan, justu barazkien eta okindegiaren artean.

Haietako bat, nire ezaguna. Agurtu nituen eta aurrera egiteko zorian nengoen, ez bereziki presaka nenbilelako, baizik eta elkarrizketari tristuraren usaina hartu niolako. Pentsatu gabeko erabakia izan zen, senak agintzen dizun pauso horietako bat. Agurtu eta aurrera jarraitu.

Ezagunak, ordea, geldiarazi ninduen, zuzenean, karrotxoari lotua zihoan ezkerreko besoari helduta. Gelditu nintzen, marraztu nuen irribarre apal bat eta egunon esan aurretik hasi zitzaidan ezezaguna kontu kontari. Galdetu zidan berarekin zegoen emakumea ezagutzen ote nuen eta ezezkoa entzun ondoren haren izen-abizenak esan zizkidan eta berehala argitu noren ama zen.

Alaba bai, alaba ezagutzen nuen, luzaroan jardun zuelako irakasle gisa eskolan. Bada, berehala kontatu zidan alaba hori gaixorik zegoela eta berriki sabela hustu ziotela, minbiziaren ondorioz. Eman nizkion minbiziak jota zegoen emakumearen amari doluminak, bota nituen zientziaren aurrerapenen gainean aldez aurretik fabrikatutako esaldiak.

Bost minutu geroago nire bideari jarraitu nion, erosi behar nituen zerak zerrendan begiratu ondoren. «Sabela hustu» zetorkidan burmuinaren lehen planora, behin eta berriro, galdera ikurrez inguratua. Ez zuen umetokia kendu ziotenik esan. Sabela hustu, esapide ezaguna.

Nola izango du, bada, sabela hutsik, bertan edozein gizonezkok duen guztia badu? Orduan bururatu zitzaidan asteotan hainbeste aipatzen diren alokairuzko sabelak ez duela izen hori merezi: alokairuz hartzen dena ez da sabela, umetokia baizik.

SALDUNEAK

FIKZIOA

1 **Bichta eder**
Eneko Bidegain. Elkar

2 **Dumitru**
Koldo Izagirre. Erein

3 **Alaska**
Castillo Suarez. Elkar

4 **Miñan**
Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

EZ FIKZIOA

1 **Pantailen garaipena**
Iñigo Martinez. Elkar

2 **Axularen gerizapean**
Kepa Altonaga. Pamiela

3 **Moio-gordeteza ezinezkoa da**
Kattalin Miner. Elkar

4 **Euskal herriko 40 emakume**
Batzuk. Beta ediciones